



Sorkun iazko Sagarrondotik jaialdian. GORRARIUBIO / AFGAZI PRESS

Sagarrondoaren beste uzta

Atom Rhumba, Raimundo Amador eta Julieta Venegas izango dira Sagarrondotik jaialdian, besteak beste

GORKA EROSTARBE
Donostia

Sagardoarekin batera musika uzta oparoa jaso ohi dute garaio-tan *sagardoaren lurraldea*-n (Hernani, Urnieta, Astigarraga eta Usurbil). Bosgarren urtez egingo da Sagarrondotik jaialdia aurten. Martxoaren 16an eta 17an Euskal

Herriko nahiz nazioarteko 10 talde ikusi eta entzun ahal izango dira Hernaniko (Gipuzkoa) Karabel auzoan kokaturiko karpan.

Martxoaren 16an, Euskal Herriko Delorean, Skalariak eta La Inconsciencia de Uoho, Ingalaterrako The James Taylor Quartet eta Kataluniako The Bon Scott Band taldeak arituko dira. Hurrengo egunean, Euskal Herriko Zea Mays eta Atom Rhumba, Valentziako (Herrialde Katalanak) Obrint Pas, Espainiako Maneta de Kamioneta eta Raimundo Amador eta Mexikoko Julieta Venegas igoko dira agertokira.

Musika jaialdia, 8000 lagunentzat egokitutako karpa gunean izango da, Hernaniko Landare errugbi zelaiaren parean. Gunea jaialdia hasi baino ordubete lehenago irekiko da. Karpa nagusiaz gain, beste bi txikiago egongo dira, jendea ahalik eta erosoan egoteko asmoz jarriak. Horietako batean, janari gunea kokatuko da sagardo kupelekin batera.

Musika kontzertuekin ez da amaituko, ordea, Sagarrondotik jaialdia. Martxoaren 18an, igandean, sagardo festa eta herri kirolak izango baitira Urnietan, goizean hasita.

■ egitaraua

Martxoak 16, ostirala

■ **21:30ean:** Delorean, Skalariak, The James Taylor Quartet, The Bon Scott Band eta La Inconsciencia de Uoho.

Martxoak 17, larunbata

■ **21:00etan:** Zea Mays, Obrint Pas, Atom Rhumba, Maneta de Kamioneta + Raimundo Amador eta Julieta Venegas.

■ **Lekua:** Hernaniko Karabel auzoan.

■ **Prezioa:** 21 euro aldeaz aurretik; 24 euro leihatilan (eguneko). Bi egunetarako abonamendua: 36 euro.

2003ko martxoan antolatu zen aurreneko aldiz Sagarrondotik jaialdia, Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartearen (S.K.S.E) ekimenez. Sagardoaren kultura bultzatzea da elkartearen helburu nagusia, eta Sagarrondotik jaialdia ere asmo horretan sartzen da.

Orain arte egin diren lau jaialdietan, 36 talde igaro dira Sagarrondotik jaialditik. Estilo anitzasuna izan du ikur jaialdiak: «Euskal Herrian egiten diren musika jaialdiak estiloka antolatzen dira gehienetan. Gu saiatzen gara musika estilo eta kolore anitzasuna izaten», dio Aitziber Ezkerra jaialdiko antolatzaileetako batek. Besteak beste, Desmond Dekker, Kiko Veneno, Kuraia, Berri Txarrak, Fito y Los Fitipaldis, Su Ta Gar, Orishas, Fermin Muguruza, The Wailers, Chambao eta Sorkun izan dira urteotan Sagarrondotik jaialdian. Aurten Hernanin ariko den Raimundo Amador lehen urteko jaialdian ere izan zen.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, 13.000 eta 14.000 lagun inguru hurbildu dira urtero, batez beste, jaialdiak irauten duen hiru egunetan.

Hautatu dituzte Getxoko jazz jaialdian lehiatuko diren taldeak

ERREDAKZIOA
Bilbo

Dagoeneko hautatu dituzte aurtengo Getxoko Jazzaldiko talde lehiaketan parte hartuko duten taldeak. Guztira 17 herrialdeetako 66 talde aritu dira lehiaketaren lehen fasean, eta haien eskaintzak entzun ondoren, epaimahaiaik lau talde hautatu ditu. Getxoko lehiaketako lehen saria eskuratzeko lehiari ariko dira hautatuak, uztaillean. People are Machines (Danimarka), Thinktank (Herbeherak), Andrew's Quartet (Errusia) eta Mr. Chacho (Espainia) uztailaren 4tik 7ra ariko dira Getxoko Jazzaldian.

Finalistek jaialdiaren lehenengo lau egunetan parte hartuko dute. Egun bakoitzean talde bakar batek emango du kontzertua, eta irabazlea bigarren jardungo da. Halaber, lehen saria irabazten duenak 3.000 euro jasoko ditu, eta disko bat grabatuko dute zuzenean. Bigarrenak 1.200 euroko saria jasoko du. Bakarleri moduan ere izango da saririk. Bakarleri onenak 600 euro eramateko aukera izango du. Sari horiez gain, lehen saria irabazten duenak Hoefflaarteko (Belgika) eta Eibisako (Herrialde Katalanak) jazzaldietan parte hartzeko eskubidea izango du, Getxo Jazzek haiekin duen hitzarmenei esker.

